

EUSKALTZAINDIAREN BILKURA IREKIA

Egoitza, 2004-V-28

Euskaltzaindiaren egoitzan, 2004ko maiatzaren 28an, egin du Euskaltzaindiak arratsaldeko Setan, ageriko bilkura, Pedro de Yrizar, Andolin Eguzkitza eta Larry Trask euskaltzainen hilberri-txostenak irakurtzeko.

Bilduak:

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua; Andres Urrutia, *Jagon* sailburua; Jose Antonio Arana Martija, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Emile Larre, Patxi Ondarra, Txomin Peillen, Pello Salaburu eta Pierre Xarritton euskaltzain osoak.

Jose Antonio Retolaza, ohorezko euskaltzaina.

Euskaltzain urgazle hauek: Joseba Agirreazkuenaga, Ricardo Badiola, Federico de Barrenengoa, Sebastian García de Trujillo, Xabier Erdozia, Karmele Rotaetxe, Pello Telleria, Patxi Urizarren eta Juan Jose Zearreta.

Mahaiari hauek izan dira: Jean Haritschelhar, Xabier Kintana, Andres Urrutia eta Jose Ignacio Hualde.

Henrike Knörr kanpotik denez, Andres Urrutiak irakurri du hark Pedro de Yrizarren prestatu duen hilberri-txostena. 2004ko urtarrilaren 10ean hil zen Madrilen Pedro Yrizar euskaltzain ohorezkoa, batez ere dialektologia-ikerketan luze eta sakonaren egilea. Ildo horretatik, bereziki *Morfología del verbo auxiliar* izenburuarekin argitaratu hamalau liburukiak aipatu ditu txostengileak. Louis-Lucien Bonaparteri jarraiki egin zuen lan hori eta Koldo Mitxelena izan zuen eragile. Azkenik, xehetasun gehiagorako, entzuleak liburu honetara zuzendu ditu hizlariak: *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y vascólogos* liburua, (2001), Iñigo Yrizar semearen eta Henrike Knörren ardurapean egin edizioa.

Xabier Kintanak egin du, ondoren, Andolin Eguzkitza euskaltzain osoaren oroimenezko hitzaldia. Andolin Eguzkitza santurtziarraren heriotza goiztiarrak askotariko galera –eta handiak– ekarri dituela adierazi du Kintanak: Euskaltzaindiari, Euskal Herriko Unibertsitateari, euskalgintzan, idazleen artean... Bereziki euskal kulturaz kezkatu egon arren, ez zituen begiak itxita munduko beste herrietako emaitzen aurrean. Interes horrek bultzaturik, bertako hizkuntzak ikasi eta frantses, ingeles-amerikar, aleman, katalan eta italiar literaturak ederki menderatzera heldu zen, testu originalak irakurri. Bestetik, sentibera, idealista, koherentea izan zen Eguzkitza, Xabier Kintana bere lagunaren esanetan. Sentiberatasun handiko pertsona izan da, bizitzak emandako kolpe, desilusio eta desengainuak gorabehera, lehen gaztaroko idealismoa azkeneraino gordetzen eta praktikatzan jakin duena, eta, bere bizitzarekin ingurukoiei eredu bikaina eskaini die gizatasunean zein euskaltzaitasunean. Giro batzuetan kristau agertzea bat

ere ongi ikusia ez den garai honetan, bestalde, Andolin Eguzkitzak ez zuen inoiz ezkutu bere fedea, bera duintasunez biziz.

Jose Ignacio Hualdek, azkenik, Larry Trask ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostena irakurri du. Hualderen esanetan, haren oroimenak luzaroan iraunen du gure artean, hizkuntzalaritzaren arloan erein zuen hazia ez baita hil eta, bereziki, euskalaritzaren baratzean landatu zuen arbolak segituko baitu fruituak ematen. Hualdek esan duenez, azken hamar urteotan, Larry Trasken izena ohorezko mailara igo da. Munduko hizkuntzalaririk ezagunenetariko bihurtu zen. Oso urte gutxitan liburu andana argitaratu zuen eta liburu horiek arrakasta handia izan dute. Zer egin zuen Larry Trasken euskararen alde? Galdera horri erantzun dio Hualdek: alde batetik, euskararen egitura eta historia gaitzat hartzen duten lanak ditugu. Hauen artean, dudarik gabe, nabarmena bere *The history of Basque* (Routledge 1997) da. Liburu honetan euskararen jatorriaren eta bilakaera historikoaren gaineko ordurarteko ezagutzak bildu zituen eta, horretan oinarrituta, sintesi berri bat egin zuen hainbat puntutan analisi berri eta argigarriak eskainiz. Are gehiago, Hualderen ustez, gaur egun ezinezkoa da euskararen historiari jardutea Trasken liburua erabili gabe. Liburu honi esker mundu zabaleko hizkuntzalari askok ezagutu dituzte euskalaritzaren nondik-norakoak. Honela amaitu du hitzaldia du Jose Ignacio Hualdek:

«Esan daiteke, Larry Trasken lanari esker, euskara, hizkuntza exotikoa izatetik oso hizkuntza ezaguna izatera pasatu dela munduko hizkuntzalarien artean. Pentsatzen dut badela hau arrazoi nahikoa Larry Trasken bizitza ospa dezagun gaur, zuok euskaltzainok, eta Euskaltzaindian ez gauden euskalariok ere».

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria